

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN 2023KO IRAILAREN 5EKO BILERAREN AKTA

2023ko irailaren 5eko 13:30etan, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseilua eratu da modu ez-presentzian. Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 17.5 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, kontseilu honen ondorioetarako, ulertzen da akta honetan jasotako erabakiak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren egoitza nagusian hartu direla (Araba 45, Vitoria-Gasteiz), hura baita erakundearen egoitza.

Aurrekoa ezarri ondoren, eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluko presidentearen deialdia tarteko, honako hauek bildu dira: **Miren Gotzone Sagardui Goikoetxea andrea**, Osasuneko sailburua eta Administrazio Kontseiluko presidentea; **José Luis Quintas Díez jauna**, Osasuneko sailburordea eta presidenteordea, **Nerea Urien Azpitarte andrea**, Administrazio eta Finantzazio Sanitarioko sailburua, eta **Hernando Lacalle Edeso jauna**, Finantza eta Aurrekontuetako sailburordea eta kontseilukidea.

Ezin etorria adierazi du Josu Iñaki Garay Ibañez de Elejalde jaunak, Aurrekontuen zuzendariak, eta botoa eta ordezkariak eskuordetu dizkio Hernando Lacalle Edeso Finantza eta Aurrekontuetako sailburuordeari (erantsita dago ordezkariak emateko agiria).

Presidenteak quorum nahikoa dagoela egiaztatu du, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuak – Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Estatutuak ezartzen dituenak– eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak ezarritakoaren arabera, eta, horrenbestez, **bertaratuek osoko bilkura eratu dute**, presidenteak deitutako bilkura egiteko eta aldeztu aurretik bidalita zegoen gai-zerrendako puntuak eztabaidatzeko. Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Estatutu Sozialen 8.3 artikuluan ezarritakoari jarraituz, Administrazio Kontseilu honetara joan dira, presidentearen baimenarekin, ente publikoko zuzendari nagusi **María Rosa Pérez Esquerdo andrea**, eta ente publikoko Aholkularitza Juridikoko zuzendariordea, **Susana López Altuna andrea** (idazkari gisa).

GAI-ZERRENDA

LEHENENGOA. - 2023ko uztailaren 17ko bileraren akta irakurri eta onartzea, hala badagokio.

ERABAKIA:Administrazio Kontseilua osatzen duten pertsonen aho batez onartzen dute 2023ko uztailaren 17an egindako bileraren akta.

BIGARREN.- Erabakia, **Administrazio Kontseiluarena, zeinaren bidez ebazten baitira 2020ko, 2021eko, 2022ko eta Egonkortzeko EPEko zenbait deialditan estatutupeko langile izateko hautaketa-probetan onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrendak onesten dituzten ebazpenen aurkako gora jotzeko errekurtsioak.**

Bi akordio-proposamen aurkeztu dira, Anestesiologiako eta Bizkorketako Fakultatibo Espezialista eta Erizaintzako Laguntzaile kategorietan estatutupeko langile izateko hautaketa-probetan onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenden aurka jarritako gora jotzeko 2 errekurtsori dagozkienak.

Funtsean egiten duten eskaerez gain, bi errekurtsioetan eskatzen dute errekurritutako ebazpenaren betearazpena etetea gora jotzeko errekurtsioa ebatzi arte.


Hona hemen gora jotzeko errekurtsioak ezesteko eta eskatutako eteteak ukatzeko arrazoiak:

- 1) Errekurtsogilea onartutako pertsonen zerrendatik kanpo uztea, funtzioak eteteko zehapena ezarri zaiolako:

6.2 oinarriak lehiaketa-oposizioaren prozeduraren bidez deitutako destinoak eskuratzeko baldintzak arautzen ditu, eta e) letran baldintza hau ezartzen du: "Diziplina-espeditente bidez osasun-zerbitzu edo administrazio publiko batetik bereizita ez egotea, (...)". Errekurtsogileak aitortu du diziplina-espeditentea ireki ondoren funtzioak eten zizkiotela aldi baterako. Guztira lau hilabetez funtzioak eteteko zehapen irmo hori 2023ko apirilaren 17an hasi zen gauzatzen, eta 2023ko abuztuaren 17an amaitu zen. Horrek esan nahi du, errekurtsogileak eskabideak aurkezteko epearen azken egunean (2023ko urtarrilaren 27a) bere funtzioak etenda ez egoteko baldintza bete arren, ez zuela betetzen hautaketa-prozesuan onartua izateko baldintza, hau da, prozesu osoan zehar eskakizun hori betetzen jarraitzea, esleitzen zaion destinoaz jabetu arte. Hortaz, funtzioak etenda egoteko lau

hilabeteetan, errekurtsogilea ez zen egon destino bat lortzeko moduan, eta, beraz, eten bat egon zen azaroaren 24ko 1736/2022 Ebazpenaren 6. oinarri horretan eskatutako baldintzei eusteari dagokionez. Errekurtsogileak alegatu duenari dagokionez, hau da, funtzioak eten zaizkiola eta ez zerbitzutik banandu, mugatutako eskubideen sortari eta horren garrantziari dagokionez (aukerarik ez izatea estatutupeko lanpostu bat lortzeko, finkoa zein aldi baterakoa), berdin-berdinak dira, bai zerbitzutik kentzeko diziplina-zehapen irmoaren kasuan, bai funtzioak etetearen kasuan, eta alde bakarra murrizketa hori aldi baterakoa edo behin betikoa izatea da. Eskatutako eteteari dagokionez, ukatu egiten da, gaiaren funtsa ezetsi delako.

2) Errekurtsogilea onartutako pertsonen zerrendatik kanpo uztea, tasak ez ordaintzeagatik:



Oinarrietan xedatutakoa aplikatuz, errekurtsogileari inskripzio-eskubideak eskubideak aurkezteko epearen barruan ordaintzeko eskatu ahal zitzaien, eta hilabeteko epea eman ordainketa hori behar bezala formalizatzeko, bai eta inskripzioa (tasen ordainketa barne) behar bezala formalizatu zela egiaztatzeko ere. Hori guztia egin zitekeen dagokion kontu korrontean inskripzio-eskubideen zenbatekoa zordundu zela egiaztatuz. Ordainketa egin ez izana, argi eta garbi adierazi den bezala, zuzendu ezin den akats bat da, eta izangaia hautaketa-prozesutik kanpo uztea dakar; horregatik, errekurtsogilea kanpo geratu da, bai erizaintzako laguntzaileen kategorian onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrendatik, bai gaur errekurritutako uztailaren 12ko 920/2023 Ebazpenaren bidez onartutako behin betiko zerrendatik. Eskatutako eteteari dagokionez, ukatu egiten da, gaiaren funtsa ezetsi delako.

ERABAKIA- Administrazio Kontseilua osatzen dutenek aho batez onesten dituzte aurkeztutako erabaki-proposamenak.

HIRUGARRENA. Ebazpena, hainbat sindikatuk 2021eko uztailaren 8ko mahai sektorialean lortutako akordioaren 3. puntua gauzatzeari buruzko 1021/23 Ebazpenaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsarena.

Gora jotzeko errekurtsua jarri zuten Osakidetzako zuzendari nagusiaren martxoaren 23ko 1021/2023 Ebazpenaren aurka, zeinaren bidez ezetsi egin baitzen SATSE, ELA, LAB, SME, CCOO eta UGT sindikatuen ordezkariak egindako eskaera, Osasuneko Mahai Sektorialak

2021eko uztailaren 8ko bileran lortutako akordioa onartzen duen maiatzaren 10eko 60/2022 Dekretuaren eranskinaren 3. puntua betearazteari buruzkoa.

Horri dagokionez, errekurtsogileek eskatu dute ebazpen bat emateko eta horren bidez onartzeko lanbide-garapena ebaluatzeko eta aitortzeko 2022ko deialdia, maiatzaren 10eko 60/2022 Dekretuaren 3. puntuan onartutako testuarekin bat etorritz.

Ez da onartzen errekurtsua, ebazpen hori aurtengo ekainaren 19an eman baitzen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ekainaren 19ko 1184/2023 Ebazpenaren bidez. Azken ebazpen horren bidez, Osakidetzaren zerbitzu-erakundeetako profesionalek 2022ko lanbide-garapenaren maila aitortzeko ohiko deialdiaren baldintzak, eskaerak, ebaluazio-prozedura eta maila-esleipena arautu ziren. Errekurtsogileek, izan ere, horretan parte hartu zuten eta guztiaren berri dute, 2023ko ekainaren 14ko eta 28ko Osasuneko Mahai Sektorialetan izan baitziren.

Beraz, xedea bat-batean galdu denez, errekurtsua ez da onartu behar (urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legea, 21.1 art.).

ERABAKIA: Administrazio Kontseilua osatzen dutenek aho batez onesten dute aurkeztutako erabaki-proposamena.

LAUGARRENA. – Informazioa eta galde-eskeak.

Eztabaidagai gehiagorik egon ez denez, bilera amaitutzat ematen da, 2023ko irailaren 5eko 13:45ean.



Sin.- Susana López Altuna
Idazkaria



Sin.- Miren Gotzone Sagardui Goikoetxea
Presidentea
O.E.